



**Bizkaia**  
*biscaytik*

**Ate irekien jardunaldia**  
2018ko azaroaren 15ean, 18:00etan

***Zatoz Bake Eder  
Jauregia ezagutzera!***



2018an BiscayTIKen X. urteurrena ospatuko dugu. Hori dela eta, publiko desberdinari zuzendutako hainbat ekitaldi antolatu dira. Horietako bat ate irekien jardunaldia da; horrela, eraikina herritarrei erakutsi ahal izango diegu eta bertan egiten diren jarduneren berri eman.

**Bake Eder Ezagutza Zentroa 2011n inauguratu zen Getxon**, Jauregia dagoen orubean lanak egindakoan. Horren ondorioz, estilo guztiz kontrajarria duten bi eraikin batu egin ziren.

Alde batetik, **Bake Eder Jauregia** dago, jatorrizko eraikinaren egiturei eta estilo klasikoari eutsiz berriztatu zutena. Gaur egun, BizcayTik Fundazioak bertan ditu lanerako esparruak. Horrez gain, formakuntzarako esparruak eta aloka daitezkeen beste batzuk ere baditu. Bestetik, **BiscayTIK eraikina** dago, kristalezkoa, modernoa eta minimalista dena, eta beraz, Bake Eder Jauregiak duen estilo klasikoari kontrajartzen zaiona. Bertan Ezagutza Zentroaren Auditoriuma dago, baita esparru digitalean diharduten enpresen egoitza ere.

## Agenda:

- 18:00 – 18:10 **Aurkezpena eta ongi etorria**
- **Ibone Bengoetxea**, Administrazio Publikoko eta Erakundeekiko Harremanetarako Foru diputatua eta BiscayTIK enpresako Presidentea
  - **Imanol Landa**, Getxoko Alkatea
- 18:10 – 18:30 **Eraikinaren ezaugarri historikoei buruzko aurkezpena**
- **Urko Baltziskueta**, Getxoko udal arkitektoa
- 18:30 – 18:50 **Berriztapenari, ezaugarri arkitektonikoei eta erabilitako teknikei buruzko aurkezpena**
- **Sara Oceja**, Azpiegiturak
  - **Marta Gonzalez eta Jesús M<sup>a</sup> Baranda**, G&C Arquitectura y Urbanismo
- 18:50 – 19:00 Galderak eta erantzunak
- 19:00 – 19:30 **Bertako bisitaldia**

Ate irekien jardunaldian parte hartu nahi izanez gero, eman izena honako helbide elektronikoan: [biscaytik10urte@bizkaia.org](mailto:biscaytik10urte@bizkaia.org)

Bisitari kopuru mugatua dugu!